



GHK-k gezurtatu du Gipuzkoako Ingurumen Gunea geldirik dagoela eta ez dela hondakinak jasotzen eta tratatzen ari

Gurasosek Gipuzkoako Ingurumen Guneari buruz egindako adierazpen alarmista berrien aurrean, GHK-k honako hau adierazi du:

Duela egun gutxi matxura txiki bat gertatu zen Zubietako Ingurumen Guneko eroanbide elektrikoko barretan. Segurtasun-babes guztiek automatikoki eta berehala jardun zuten. Transformadore nagusia eta instalazio elektrikoa ez dira kaltetu. Beraz, Gipuzkoako Ingurumen Guneak lurraldeko hiri-hondakinak jasotzen eta tratatzen jarraitzen du. Era berean, matxura horrek ez du eragin negatiborik izan ingurumenean, eta ez du kalterik eragin pertsonengan.

Matxuraren ondoren, instalazioko teknikariek beharrezko babesak eta sistemak egiaztatu dituzte. Emakidadunak dagoeneko eskatu du matxuratutako barra ordezkatzeari, eta datozen egunetan ordeztuko du. Era berean, matxuraren arrazoia ikertzen ari dira.

Halaber, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketak gezurtatu egin ditu Gorka Buenok instalazioaren eraginkortasunari buruz egindako adierazpenak; izan ere, ziurtatuta dago, aise betetzen da eta ez dago araudiaren ez betetzerik.

Amaitzeko, GHK-k berriro deitoratu du Gurasosek gipuzkoarren sortu nahi duen alarma-sentsazioa, tratamendu-azpiegituretan gertatzen den edozein gorabehera txiki handituz.

Zubieta, 2023ko apirilaren 27a